10.2.- Kontratuaren adjudikazioduna hautatzeko irizpide bakarra prezioa bada, eskaintzak irekitzeko epealdia amaitu ondoren hamabost egun pasatu baino lehen adjudikatu beharko da kontratua (izapideak presaz eginez gero, zortzi egun pasatu baino lehen). Kontratua adjudikatzeko hainbat irizpide hartu behar badira kontuan, edo aplikatzen den irizpide bakarra bizi zikloaren kostua ahalik txikiena izatea bada, eskaintzak irekitzen direnetik bi hilabete pasatu baino lehen adjudikatu beharko da kontratua (izapideak presaz eginez gero, hilabete pasatu baino lehen), ezaugarrien taulako P) idatz zatian besterik ezarri ezean. Eskaintza gutun azal batean baino gehiagotan aurkezten bada eta, beraz, bakoitza egintza batean ireki behar bada, aurreko epealdia C gutun azala irekitzen denetik zenbatuko da.	10.2.- Cuando el único criterio para seleccionar a la empresa adjudicataria del contrato sea el del precio, la adjudicación deberá recaer en el plazo máximo de quince días a contar desde el siguiente al de apertura de las proposiciones (ocho en el caso de tramitación urgente). Cuando para la adjudicación del contrato deban tenerse en cuenta una pluralidad de criterios, o utilizándose un único criterio sea este el del menor coste del ciclo de vida, el plazo máximo para efectuar la adjudicación será de dos meses a contar desde la apertura de las proposiciones, (un mes en el caso de tramitación urgente), salvo que se hubiese establecido otro en el apartado P) del Cuadro de Características. Si la proposición se contuviera en más de un sobre, de tal forma que estos deban abrirse en varios actos independientes, el plazo anterior se computará desde el acto de apertura del sobre C.
10.3.- Tolosaldea Garatzenek bi aukera edukiko ditu: kontratua eskaintza onena egin duenari adjudikatzea, adjudikazio irizpideak aplikatuta, edo kontratua adjudikatu gabe uztea, baldintzen agirietan ezarritako irizpideen arabera onar daitekeen eskaintzarik ez badago. Hala ere, SPKLko 152. artikuluan ezartzen denarekin bat etorriz, Tolosaldea Garatzenek, kontratua formalizatu baino lehen, uko egin ahal izango dio adjudikatzeari herritarren interesak direla eta, edo bertan behera utzi ahal izango du izapidetutako prozedura, konponezineko akatsik gertatu bada. Batera zein bestera, enpresa lizitatzaileei konpentsazioa eman beharko die ezaugarrien taulako Q) idatz zatian ezartzen den bezala.	10.3.- Tolosaldea Garatzen tendrá alternativamente la facultad de adjudicar el contrato a la mejor oferta de conformidad con los criterios de adjudicación o declarar desierta la licitación, cuando no exista oferta o proposición alguna que sea admisible de acuerdo con los criterios que figuren en los pliegos. No obstante, en los términos previstos en el artículo 152 de la LCSP, Tolosaldea Garatzen, antes de formalización del contrato, podrá renunciar a adjudicarlo por razones de interés público, o desistir del procedimiento tramitado, cuando éste adolezca de defectos no subsanables, debiendo compensar a las empresas licitadoras en ambos casos en la forma prevista en el apartado Q) del Cuadro de Características.
10.4.- Adjudikazioan arrazoiak azaldu beharko dira; baliabide elektronikoen bidez jakinaraziko zaie enpresa hautagai edo lizitatzaileei eta, gainera, kontratatzailearen profilean agertuko da hamabost egunez. Jakinarazpenean adjudikazio prozeduran izan diren enpresek adjudikazio erabakiaren kontra ondo oinarritutako errekurtsoa aurkeztu ahal izateko behar den informazio guztia eman beharko da. Honako datu hauek zehaztu behar	10.4.- La adjudicación deberá ser motivada, se notificará por medios electrónicos a las empresas candidatas o licitadoras y, simultáneamente, se publicará en el perfil de contratante en el plazo de quince días. La notificación deberá contener, en todo caso, la información necesaria que permita a los interesados en el procedimiento de adjudicación interponer recurso suficientemente fundado contra la decisión de adjudicación.

dira, hain zuzen: a) Baztertu diren enpresa hautagaiak direla eta, bazter uzteko kontuan hartu diren arrazoien laburpena. b) Adjudikazio prozeduratik kanpo utzitako enpresa lizitatzaileei dagokienez, eskaintza ez onartzeko arrazoiak, laburtuta, eta enpresa lizitatzaileen balorazioen banakapena (adjudikaziodunarena barne). c) Kasu guztietan, enpresa adjudikaziodunaren izena, beraren eskaintzaren ezaugarriak eta onartutako gainerako eskaintza guztiak gaindituta kontratua berari adjudikatzea eragin duten onurak. Jakinarazpenean eta kontratatzailearen profilean kontratua formalizatzeko epealdia zehaztu beharko da, SPKLko 153.3 artikuluan ezartzen den bezala. 10.5.- Aurkezten diren eskaintzak (bai onartzen direnak, bai ireki gabe baztertzen direnak, bai ireki ondoren ezesten direnak) lizitazioaren espedientean artxibatuko dira. Kontratua adjudikatu ondoren, errekurtsoak aurkezteko epealdian halakorik batere aurkezten ez bada, eskaintzarekin aurkeztutako agiriak interesdunen eskura geratuko dira. Urtebetean enpresa lizitatzaileek dokumentazioa eskatzen ez badu, ezabatu egin ahal izango da.	En particular, expresará los siguientes extremos: a) En relación con las empresas candidatas descartadas, la exposición resumida de las razones por las que se haya desestimado su candidatura. b) Con respecto a las empresas licitadoras excluidas del procedimiento de adjudicación, también en forma resumida, las razones por las que no se haya admitido su oferta y un desglose de las valoraciones asignadas a las distintas empresas licitadoras, incluyendo a la adjudicataria. c) En todo caso, el nombre de la empresa adjudicataria, las características y ventajas de la proposición de la empresa adjudicataria determinantes de que haya sido seleccionada la oferta de ésta con preferencia a las que hayan presentado las restantes empresas licitadoras cuyas ofertas hayan sido admitidas. En la notificación y en el perfil de contratante se indicará el plazo en que debe procederse a su formalización, conforme al artículo 153.3 de la LCSP. 10.5.- Las proposiciones presentadas, tanto las declaradas admitidas como las rechazadas sin abrir o las desestimadas una vez abiertas, serán archivadas en su expediente. Adjudicado el contrato y transcurridos los plazos para la interposición de recursos sin que se hayan interpuesto, la documentación que acompaña a las proposiciones quedará a disposición de los interesados. En el caso de que las empresas licitadoras no lo soliciten en el plazo de un año, dicha documentación podrá ser destruida.
IV. KONTRATUAREN FORMALIZAZIOA **11.- KONTRATUA FORMALIZATU AURREKO BETEBEHARRAK** 11.1.- Behin betiko adjudikazioaren jakinarazpenaren hartu agiria jaso ondoren, enpresa adjudikaziodunak kontratua formalizatu aurretik ezaugarrien taulako R) idatz zatian aipatzen diren kontratuen polizen eta lehen primen ordainagirien kopiak aurkeztu beharko ditu. Enpresak bere kargura kontratatu behar ditu aseguru horiek eta bere kargura mantendu kontratuaren iraunaldian eta berme aldian. Bermeen aseguruen mugak Tolosaldea Garatzenek zehaztuko ditu kontratatzen den zerbitzuaren ezaugarriak kontuan hartuta. 11.2.- Kontratua indarrean den artean kontratazio organoak enpresa kontratistari eskatu ahal izango dio erakuts diezaiola aseguruen dokumentazioa edo, bestela, eman diezazkiola aseguru horien polizen kopiak edo ziurtagiriak, eta froga diezaiola primen ordainketak egunean dauzkala.	**IV. FORMALIZACIÓN DEL CONTRATO** **11.- OBLIGACIONES PREVIAS A LA FORMALIZACIÓN DEL CONTRATO** 11.1.- Acusado recibo de la notificación de adjudicación, la empresa adjudicataria, antes de la formalización del contrato, deberá aportar copia de la póliza y justificante de pago de la prima de contratación de los contratos de seguro indicados en el apartado R) del Cuadro de Características, que la empresa adjudicataria haya contratado y mantendrá a su costa durante el plazo del contrato y el plazo de la garantía. Los límites asegurados serán aquéllos que la Administración determine en función de las peculiaridades del servicio objeto de contratación. 11.2.- Durante la vigencia del contrato, el órgano contratante podrá pedir a la empresa contratista que le exhiba la documentación correspondiente a dichos seguros, o que se le entregue copia de las pólizas o certificado de los mismos, así como que se le acredite estar al corriente en el pago de

Kontratistak eskatutako guztia egin beharko du, eta egiten ez badu, kontratazio organoak ziurtapenen edota fakturen ordainketa eten ahal izango du, bai eta, obrak jasota badaude, berme aldiaren konputuaren hasiera ere. Etenaldi hau ez da konputatuko kalte ordainen ondorioetarako. Gainera, eskaera ez betetzeak erantzukizunak sor ditzake.

12.- KONTRATUAREN FORMALIZAZIOA

12.1.- Tolosaldea Garatzenen kontratuak lizitazioarekin guztiz bat datorren administrazio agirian formalizatu beharko dira. Kontratua aldi baterako enpresa elkarte bati adjudikatzen bazaio, enpresek 12.2 eta 12.3 idatz zatietan ezartzen den epealdian frogatu beharko dute ura eskritura publikoan eratu dela. Elkartearen iraupena kontratua azkendu artekoa izango da. Gainera, aldi baterako enpresa elkartearen IFZ aurkeztu beharko da.

12.2.- Kontratuaren adjudikazioaren kontra kontratazioaren arloko errekurtso berezia aurkeztu ahal bada, ezin izango da formalizatu enpresa lizitatzaileei adjudikazioaren jakinarazpena bidaltzen zaienetik hamabost egun baliodun pasatu baino lehen.

Kontratazio organoak enpresa adjudikaziodunari eskatuko dio kontratua formalizatzeko errekerimendua jaso eta hurrengo egunetik bost egun pasatu baino lehen (izapideak presaz eginez gero, hiru egun), aurreko paragrafoan ezartzen den epealdian kontratuaren formalizazioa etetea dakarren errekurtsorik aurkezten ez bada. Gauza bera egingo da errekurtsoa ebazteko eskumena daukan organoak etendura indargabetzen duenean.

12.3.- Gainerako kasuetan, enpresa lizitatzaileei adjudikazioa jakinarazten zaienetik hamabost egun baliodun pasatu baino lehen formalizatu beharko da kontratua (izapideak presaz eginez gero, zortzi egun baliodun pasatu baino lehen).

12.4.- Enpresa adjudikaziodunari egotz dakizkiokeen arrazoiengatik kontratua aipatutako epealdian formalizatzen ez bada, Tolosaldea Garatzenek lizitazioaren oinarrizko aurrekontuko ehuneko 3 eskatuko dio (BEZ kanpo) zehapen kontzeptuan; hori, lehenik eta behin, behin betiko bermearen kontra ordainduko da, eratuta egonez gero. Gainera, SPKLko 71. artikuluko 2. idatz zatiko b) letran ezartzen dena aplikatuko da.

Kasu horretan, eskaintzen sailkapeneko hurrengo enpresa lizitatzaileari adjudikatuko zaio kontratua, agiri honetako 8. baldintzan aipatzen den dokumentazioa aurkeztu ondoren. Aurreko idatz zatietan ezartzen diren epealdiak aplikatuko dira.

12.5.- Kontratua ez formalizatzeko arrazoiak Tolosaldea

las primas, con la obligación, por parte de ésta, de cumplimentar dicho requerimiento, pudiendo, en caso contrario, el órgano contratante suspender el pago de certificaciones de obra y/o facturas y, en su caso, suspender el inicio del cómputo del plazo de garantía, sin que dicho periodo de suspensión sea computable a efectos de indemnizaciones, sin perjuicio de las demás responsabilidades a que hubiere lugar por causa de incumplimiento.

12.- FORMALIZACIÓN DEL CONTRATO

12.1.- Los contratos que celebre Tolosaldea Garatzen deberán formalizarse en documento administrativo que se ajuste con exactitud a las condiciones de la licitación. En el caso de que el contrato fuera adjudicado a una Unión Temporal de Empresas, éstas deberán acreditar dentro del plazo previsto en los apartados 12.2 y 3 siguientes la constitución de la misma en escritura pública, cuya duración será coincidente con la del contrato hasta su extinción, y presentar el NIF asignado a la Unión Temporal de Empresas.

12.2.- Si el contrato es susceptible de recurso especial en materia de contratación, la formalización no podrá efectuarse antes de que transcurran quince días hábiles desde que se remita la notificación de la adjudicación a las empresas licitadoras.

El órgano de contratación requerirá a la empresa adjudicataria para que formalice el contrato en plazo no superior a cinco días (tres en el caso de tramitación urgente) a contar desde el siguiente a aquél en que hubiera recibido el requerimiento, una vez transcurrido el plazo previsto en el párrafo anterior sin que se hubiera interpuesto recurso que lleve aparejada la suspensión de la formalización del contrato. De igual forma procederá cuando el órgano competente para la resolución del recurso hubiera levantado la suspensión.

12.3. – En los restantes casos, la formalización del contrato deberá efectuarse no más tarde de los quince días hábiles siguientes (ocho en el caso de tramitación urgente) a aquél en que se practique la notificación de la adjudicación a las empresas licitadoras.

12.4.- Cuando por causas imputables a la empresa adjudicataria no se hubiese formalizado el contrato dentro del plazo indicado, Tolosaldea Garatzen le exigirá el importe del 3 por ciento del presupuesto base de licitación, IVA excluido, en concepto de penalidad, que se hará efectivo en primer lugar contra la garantía definitiva, si se hubiera constituido, sin perjuicio de lo establecido en la letra b) del apartado 2 del artículo 71 de la LCSP.

En este caso, el contrato se adjudicará a la siguiente empresa licitadora por el orden en que hubieran quedado clasificadas las ofertas, previa presentación de la documentación establecida en la cláusula 8 del presente Pliego, resultando de aplicación los plazos establecidos en

Garatzeni egotzi ahal bazaizkio, enpresa kontratistari atzerapenak eragiten dituen kalteen ordaina emango zaio.

12.6.- Kontratuari ezin izango zaio ekin formalizatu gabe dagoen artean, espedientea presaz izapidetzen denean izan ezik.

12.7.- Kontratua formalizatzeko unean bertan eta, betiere, hura gauzatzen hasi baino lehen, kontratistak Tolosaldea Garatzeni eskuratu beharko dizkio irailaren 29ko HFP/1030/2021 Aginduan, Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Plana kudeatzeko sistema ezartzen duena eta bestetik irailaren 29ko HFP/1031/2021 Aginduan Estatuko, Autonomia Erkidegoko eta Tokiko Sektore Publikoko erakundeek eman beharreko informazioaren prozedura eta formatua ezartzen dituena, Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Planaren mugarriak eta helburuak bete eta osagaien neurrien aurrekontua eta kontabilitatea gauzatzen direla egiaztatzeko, ezarritako aitorpenak, bai berari bai kontratua gauzatzen berarekin elkarlanean aritu behar duten enpresa azpikontratistei dagozkienak:

- Interes gatazkarik ezaren aitorpena (IGEA) (XIV. Eranskina).
- Datuak laga eta tratatzeko aitorpena, Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Planeko (SEEP) jarduketen exekuzioa dela-eta (XV. Eranskina).
- Konpromiso aitorpena, Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Planeko (SEEP) jarduketen exekuzioa dela-eta (XVI. Eranskina).
- Ingurumenari kalte nabarmenik ez eragiteko erantzukizunpeko adierazpena (DNSH Printzipioa) (XVII. Eranskina).
- Berariazko baimena Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Planeko agintaritzei (XVIII. Eranskina)
- Egiazko titulartasunari buruzko erantzukizun adierazpena (XIX. Eranskina)

V. KONTRATUA BURUTZEA

13.- KONTRATUA BURUTZEA

13.1.- OBREN ZUZENDARITZA ETA IKUSKAPENA. Kontratuko zuzendariak hitzartutako prestazioa behar bezala egiten den begiratu, koordinatu eta zainduko du; horretarako titulu egokia eta behar bezalakoa eduki behar du.

Zuzendari fakultatiboak hainbat laguntzaile eduki ditzake agindupean bere lanak egiteko. Laguntzaileak beren titulu profesionalaren edo ezagutza berezien arabera ariko dira kontratuaren zuzendaritzan.

los apartados anteriores.

12.5.- Si las causas de la no formalización fueran imputables a Tolosaldea Garatzen, se indemnizará a la empresa contratista de los daños y perjuicios que la demora le pudiera ocasionar.

12.6.- No podrá iniciarse la ejecución del contrato sin su previa formalización, excepto en los casos previstos para los expedientes que sean objeto de tramitación de emergencia.

12.7.- En el mismo momento de formalización del contrato y, en todo caso, antes de iniciarse su ejecución el contratista deberá entregar a Tolosaldea Garatzen las declaraciones, correspondientes a él mismo así como a las empresas subcontratistas que vayan a colaborar con él en la ejecución del contrato, previstas en la Orden HFP/1030/2021, de 29 de septiembre, por la que se configura el sistema de gestión del Plan de Recuperación, Transformación y Resiliencia, así como en la Orden HFP/1031/2021, de 29 de septiembre, por la que se establece el procedimiento y formato de la información a proporcionar por las Entidades del Sector Público Estatal, Autonómico y Local para el seguimiento del cumplimiento de hitos y objetivos y de ejecución presupuestaria y contable de las medidas de los componentes del Plan de Recuperación, Transformación y Resiliencia:

- Declaración de Ausencia de Conflicto de Intereses (DACI) (Anexo XIV).
- Declaración de cesión y tratamiento de datos en relación con la ejecución de actuaciones del plan de recuperación, transformación y resiliencia (PRTR) (Anexo XV).
- Declaración de compromiso en relación con la ejecución de actuaciones del plan de recuperación, transformación y resiliencia (PRTR) (Anexo XVI).
- Declaración Responsable de no causar perjuicio significativo al medio ambiente (Principio DNSH) (Anexo XVII).
- Autorización expresa a autoridades del PRTR (Anexo XVIII)
- Declaración responsable de titularidad real (Anexo XIX)

V. EJECUCIÓN DEL CONTRATO

13.- EJECUCIÓN DEL CONTRATO

13.1.- DIRECCIÓN E INSPECCIÓN DE LA EJECUCIÓN. La Dirección del contrato será la persona, con titulación adecuada y suficiente, directamente responsable de la comprobación, coordinación y vigilancia de la correcta realización de la prestación pactada.

Para el desempeño de su función podrá contar con la colaboración de personas a sus órdenes, que desarrollarán sus actividades en función de las atribuciones derivadas de sus títulos profesionales o de sus conocimientos

Kontratua formalizatzen denetik hamabost egun natural pasatu baino lehen Tolosaldea Garatzenek kontratazio organoak izendatutako zuzendariaren berri emango dio kontratistari, eta zuzendariak gauza bera egingo du bere laguntzaileei dagokienez. Aldaketak idatziz jakinarazi beharko zaizkio enpresa kontratistari.	específicos y que integrarán la dirección del contrato. La dirección designada por el órgano de contratación será comunicada a la empresa contratista por Tolosaldea Garatzen en el plazo de quince días naturales a contar desde la formalización del contrato y dicha dirección procederá en igual forma respecto de su personal colaborador. Las variaciones serán puestas en conocimiento de la empresa contratista por escrito.
13.2.- KONTRATUA BURUTZEKO ARAU OROKORRAK 13.2.1- Lanak egitea. Kontratua agiri honetan ezartzen diren baldintzei zorrotz lotuta egin behar da, eta Tolosaldea Garatzenek enpresa kontratistari interpretazioaz ematen dizkion jarraibideekin bat etorriz.	13.2.- NORMAS GENERALES RELATIVAS A LA EJECUCIÓN DEL CONTRATO 13.2.1- Ejecución de los trabajos. El contrato se ejecutará con estricta sujeción a las cláusulas estipuladas en el presente Pliego y de acuerdo con las instrucciones que para su interpretación diera a la empresa contratista Tolosaldea Garatzen.
Kontratuaren burutzapenean, enpresa kontratistak SPKLko 311. artikuluan ezartzen diren erantzukizunak edukiko ditu. Zerbitzu kontratuaren xedea obra proiektu bat egitea bada eta egiaztatzen bada oker, akats tekniko edo desbideratzeren bat dagoela, zuzentzeko espedientea irekiko da, SPKLko 314. eta 315. artikuluetan ezartzen den bezala. Kontratuko lanak egiten diren artean eta berme aldia amaitu arte enpresa kontratistak sumatzen diren akats guztien erantzukizuna edukiko du.	La ejecución del contrato se realizará por la empresa contratista con las responsabilidades establecidas en el artículo 311 de la LCSP. Cuando el contrato de servicios consista en la elaboración íntegra de un proyecto de obra y se compruebe la existencia de defectos, insuficiencias técnicas, errores o desviaciones procederá la incoación de expediente de subsanación establecidas en los artículos 314 y 315 de la LCSP. Durante el desarrollo del contrato y hasta que se cumpla el plazo de garantía la empresa contratista es responsable de los defectos que puedan advertirse.
13.2.2.- Lanen eta kalteen erantzukizuna. Enpresa adjudikaziodunak egiten dituen lanen eta ematen dituen prestazioen eta zerbitzuen kalitate teknikoaren erantzukizuna edukiko du. Halaber, kontratua gauzatzean kontratistak hutsik edo okerrik egiten badu, metodo ezegokirik erabiltzen badu edo lanak gaizki egiten baditu eta ondorioz Tolosaldea Garatzenek edo hirugarren batek kalterik jasaten badu, bera izango da erantzulea. Hirugarrenei egiten zaizkien kalteak bere kontura ordainduko ditu.	13.2.2.- Responsabilidad por los trabajos y daños. La empresa adjudicataria será responsable de la calidad técnica de los trabajos que desarrolle y de las prestaciones y servicios realizados, así como de las consecuencias que se deduzcan para Tolosaldea Garatzen o para terceros de las omisiones, errores, métodos inadecuados o conclusiones incorrectas en la ejecución del contrato. Será por su cuenta la indemnización de los daños que se originen a terceros.
13.2.3.- Burutzeko epealdiak. Lanak kontratua formalizatzen duen agiria sinatu eta hurrengo egunean hasiko dira. Kontratua burutzeko epealdiaren eta ezartzen diren gainerako epealdi partzial guztien erreferentzia eguna lanak hasten diren eguna izango da. Izapidetzea presazkoa bada, kontratuari formalizatzen den egunetik hamabost egun baliodun pasatu baino lehen ekin behar zaio. Epealdi horretan kontratuko lanei ekiten ez bazaie, kontratua suntsiarazi ahal izango da, honako kasu honetan izan ezik: atzerapena ezin bazaie egotzi entitate kontratatzaileri ez enpresa kontratistari eta horren berri ematen bada arrazoitutako ebazpenean. Kontratua burutzeko epealdi orokorra eta epealdi partzialak ezaugarrien taulako S) idatz zatian zehaztuko dira; luzapenik egonez gero, horiek ere bai.	13.2.3.- Plazos de ejecución. La fecha de comienzo de los trabajos será a partir del día siguiente al de la firma del documento de formalización del contrato. El plazo de ejecución y los plazos parciales que, en su caso se establezcan, estarán referidos a la fecha de comienzo de los trabajos. En el supuesto de que la tramitación se haya declarado de urgencia, el plazo de inicio de la ejecución del contrato no podrá ser superior a quince días hábiles contados desde la formalización. Si se excediese este plazo, el contrato podrá ser resuelto, salvo que el retraso se debiera a causas ajenas a la entidad contratante y a la empresa contratista y así se hiciera constar en la correspondiente resolución motivada. El plazo general de ejecución del contrato, los plazos parciales, en su caso, así como las posibles prórrogas, serán los que se fijen en el apartado S) del Cuadro de

	Características.
Kontratuaren epealdia indarreko legerian aipatzen diren kasuetan soilik luzatu ahal izango da, bertan ezartzen diren baldintzak betez gero.	El plazo contractual sólo será prorrogable cuando concurran las circunstancias y requisitos exigidos por la legislación vigente.
13.3.- ZEHAPENAK KONTRATUAREN XEDEA GAIZKI EGITEAGATIK, ZATI BAT EZ EGITEAGATIK ETA ATZERATZEAGATIK. Kontratuaren xedea gaizki egiten bada, kontratua burutzeko ezarritako konpromisoak edo baldintza bereziak betetzen ez badira edo enpresa kontratistak kontratuan zehazten den prestazioetako baten burutzapen partziala betetzen ez badu berari egotzi ahal zaio arrazoi batengatik, zehapena ezarri ahal izango da, ezaugarrien taulako U) idatz zatian ezartzen bada.	13.3.- PENALIDADES POR EJECUCIÓN DEFECTUOSA, INCUMPLIMIENTO PARCIAL Y DEMORA. En caso de cumplimiento defectuoso de la prestación objeto del contrato, incumplimiento de los compromisos o de las condiciones especiales de ejecución del contrato que se hubiesen establecido, así como cuando la empresa contratista, por causas imputables a la misma, incumpla la ejecución parcial de las prestaciones definidas en el contrato, se podrá establecer penalidades, si así se recoge en el apartado U) del Cuadro de Características.
Enpresa adjudikaziodunak kontratua burutzeko epealdia eta Tolosaldea Garatzenek zehaztutako epealdi partzialak bete beharko ditu.	La empresa adjudicataria queda obligada al cumplimiento del plazo de ejecución del contrato y de los plazos parciales fijados por Tolosaldea Garatzen.
Enpresa kontratistak ez badu betetzen aurreko epealdi horietako bat berari egotz dakiokeen arrazoi batengatik, Tolosaldea Garatzenek bi aukera edukiko ditu: kontratua suntsiarazi edo zehapen ekonomikoa ezarri. Zehapenen zenbatekoak ezaugarrien taulako U) idatz zatian finkatu dira.	Si llegado el término de cualquiera de los plazos citados, la empresa contratista hubiera incurrido en mora por causas imputables al mismo, Tolosaldea Garatzen podrá optar por la resolución del contrato o por la imposición de penalidades económicas. Estas ascenderán a las cuantías establecidas en el apartado U) del Cuadro de Características.
Atzerapena kontratistari egotzi ezin zaion arrazoi batengatik gertatzen bada, SPKLko 195.2 artikuluan xedatzen dena aplikatuko da.	Si el retraso fuera producido por motivos no imputables a la empresa contratista, se estará a lo dispuesto en el artículo 195.2 de la LCSP.
Nolanahi ere, enpresa kontratistaren atzerapena ezartzeko ez da beharrezkoa izango Tolosaldea Garatzenek aurretik interpelatzea ez hertsatzea.	En todo caso, la constitución en mora de la empresa contratista no requerirá interpelación o intimación previa por parte de Tolosaldea Garatzen.
13.4.- KALTE-GALERAK.	13.4.- DAÑOS Y PERJUICIOS.
Kontratuaren zati bat bete ez, kontratua akatsekin bete edo burutzapenean atzerapena gertatu eta, hala ere, zehapenik ezarri behar ez bada edo, horregatik ezarri beharreko zehapenak ez baditu estaltzen Tolosaldea Garatzeni egindako kalteak, horrek kalte-galeren ordaina eskatuko dio enpresa kontratistari.	En los supuestos de incumplimiento parcial o cumplimiento defectuoso o de demora en la ejecución en que no esté prevista penalidad o en que estándolo la misma no cubriera los daños causados a Tolosaldea Garatzen, ésta exigirá a la empresa contratista la indemnización por daños y perjuicios.
13.5.- KONTRATATUTAKO LANEI BURUZKO ARAU OROKORRAK	13.5.- NORMAS GENERALES RELATIVAS AL TRABAJO CONTRATADO
13.5.1.- Enpresak zerbitzua edo prestazioa kontratuan ezarritako epealdietan behar bezala emateko beharrezkoak diren ekipo eta bitarteko guztiak jarri beharko ditu.	13.5.1.- La empresa queda obligada a aportar, para la realización del servicio o prestación, el equipo y medios auxiliares que sean precisos para la buena ejecución de aquél en los plazos convenidos en el contrato.
Tolosaldea Garatzenek uste badu elementuren bat ez dela egokia, baztertu egin dezake. Hala ere, enpresak ebazpen horren aurka erreklamazioa aurkez dezake egutegiko hamar eguneko epealdian, zuzendaritzak erabakia baliabide elektronikoen bidez jakinarazten dionetik zenbatuta.	Tolosaldea Garatzen podrá rechazar cualquier elemento que considere inadecuado, con el derecho de la empresa a reclamar frente a tal resolución ante Tolosaldea Garatzen en el plazo de diez días naturales, contados a partir de la notificación que por medios electrónicos le haga por escrito
13.5.2.- Zerbitzugintzari atxikitako langileak enpresa adjudikaziodunaren mendekoak izango dira; berak bakarrik	

edukiko ditu enplegatzaile izateari datxezkion eskubideak eta betebeharrak. Horretarako, betebehar hauek hartuko ditu bere gain enpresa adjudikaziodunak:

1.- Enpresa adjudikaziodunak bakarrik edukiko du langileak hautatzeko ardura; titulazioaz eta esperientziaz eskatzen diren baldintzak betetzen diren langileak baino ezin izango ditu hautatu. Hautatzen dituen langileak kontratuaren burutzapenari atxikitzen zaion lantaldean egongo dira. Tolosaldea Garatzenek langileok aurrean aipatutako baldintzak betetzen dituzten egiaztatu ahal izango du.

2.- Enpresa adjudikaziodunak ahaleginak egingo ditu lantaldean egonkortasuna egon dadin, eta haren osaketan aldaketak unean unekoak izan daitezen eta arrazoi justifikatuak izan ditzaten, zerbitzuaren funtzionamendu ona ez asaldatzeko. Tolosaldea Garatzen informatuta eduki behar du beti.

3.- Enpresa adjudikaziodunak enpresa ororen berezko zuzentzeko boterea erabili behar du kontratua burutzeko ardura daukan lantaldeko langileengan, benetan, eraginkortasunarekin eta etengabean. Zehazki, bere gain hartuko du soldatak negoziatzea eta ordaintzea, baimenak, lizentziak eta oporrak ematea, langileen ordezpenak baja hartu edo huts egiteko kasuetan, Gizarte Segurantzaren arloko legezko betebeharrak, dagokionean kotizazioak eta prestazioak ordaintzea barne, lan arriskuen prebentzioaren arloko legezko betebeharrak, diziplina ahalmena erabiltzea, eta alderdi enplegatu eta enplegatzailearen arteko kontratuzko harremanetik datozen eskubide eta betebehar guztiak.

4.- Enpresa adjudikaziodunak bereziki zaindu behar du kontratuaren burutzapenari atxikitako langileek beren jarduera kontratuaren xedetik irten gabe egiten dutela.

5.- Enpresa adjudikaziodunak gutxienez koordinatzaile tekniko edo arduradun bat izendatu beharko da, langileen plantillakoa; horren betebeharretako batzuk honako hauek izango dira:

a) Tolosaldea Garatzen aurrean enpresa adjudikaziodunaren solaskide jardutea enpresa adjudikaziodunaren eta kontratuari atxikitako lantaldeko langileen eta erakunde kontratatzailearen arteko komunikazioa bideratzeko kontratuaren burutzapenak dakartzan kontu guztiei dagokienez.

b) Lana kontratua gauzatzeko ardura duten langileen artean banatzea, eta kontratatutako zerbitzua emateari

la Dirección.

13.5.2.- El personal adscrito a la prestación del servicio dependerá exclusivamente de la empresa adjudicataria, única que ostentará los derechos y obligaciones inherentes a su condición de empleadora. A tales efectos, la empresa adjudicataria asumirá las siguientes obligaciones:

1.- Corresponderá exclusivamente a la empresa adjudicataria la selección del personal que, reuniendo los requisitos de titulación y experiencia exigidos formará parte del equipo de trabajo adscrito a la ejecución del contrato, sin perjuicio de la verificación por parte de Tolosaldea Garatzen del cumplimiento de aquellos requisitos.

2.- La empresa adjudicataria procurará que exista estabilidad en el equipo de trabajo, y que las variaciones en su composición sean puntuales y obedezcan a razones justificadas, en orden a no alterar el buen funcionamiento del servicio, informando en todo momento a Tolosaldea Garatzen.

3.- La empresa adjudicataria asume la obligación de ejercer de modo real, efectivo y continuo, sobre el personal integrante del equipo de trabajo encargado de la ejecución del contrato, el poder de dirección inherente a toda empresa. En particular asumirá la negociación y pago de los salarios, la concesión de permisos, licencias y vacaciones, las sustituciones del personal en casos de baja o ausencia, las obligaciones legales en materia de Seguridad Social, incluido el abono de cotizaciones y el pago de prestaciones cuando proceda, las obligaciones legales en materia de prevención de riesgos laborales, el ejercicio de la potestad disciplinaria, así como cuantos derechos y obligaciones se deriven de la relación contractual entre las partes empleada y empleadora.

4.- La empresa adjudicataria velará especialmente porque el personal adscrito a la ejecución del contrato desarrolle su actividad sin extralimitarse en las funciones desempeñadas respecto de la actividad delimitada en los pliegos como objeto del contrato.

5.- La empresa adjudicataria deberá designar al menos una persona coordinadora técnica o responsable, perteneciente a su plantilla de personal, que tendrá entre sus obligaciones las siguientes:

a) Actuar como persona interlocutora de la empresa adjudicataria frente a Tolosaldea Garatzen a Administración, canalizando la comunicación entre la empresa contratista y el personal integrante del equipo de trabajo adscrito al contrato, de un lado, y la

dagokionez behar diren lan aginduak eta jarraibideak ematea.

c) Lantaldeko langileek esleituta dauzkaten eginkizunak zuzen betetzen dituztela gainbegiratzea, eta langile horiek lanpostura doazela kontrolatzea.

d) Kontratuaren burutzapenari atxikitako langileen opor araubidea antolatzea: horretarako, enpresa adjudikazioduna ondo koordinatu beharko da Tolosaldea Garatzenekin zerbitzuaren funtzionamendu ona ez asaldatzeko.

e) Tolosaldea Garatzeni kontratuaren burutzapenari atxikitako lantaldearen osaketan gertatutako aldaketa guztiak, unean unekoak nahiz iraunkorrak, jakinaraztea.

13.5.3.- Enpresa adjudikaziodunak bere bulego edo instalazioetan gauzatu beharko du kontratua, kasu honetan izan ezik: zerbitzuak Tolosaldea Garatzen bulegoetan eman beharra ezaugarrien taulan edo baldintza teknikoen agirian ezartzen bada eta berariaz baimenduta badago. Kasu horretan, enplegatu publikoek okupatzen dituztenetatik bereizitako lan esparruak jarriko ditu Tolosaldea Garatzenek enpresa adjudikaziodunaren eskura, eta horrek zerbitzu horiek egiteko atxikita dauden langileek esleitutako kokalekua errespetatzen dutela zaindu beharko du.

Kontratuaren xedearen izaera dela eta zerbitzuak Tolosaldea Garatzen lan zentroetan kokatutako instalazioetan etengabe eman behar badira, enpresa adjudikaziodunak, bestalde, prestazioa hasi aurretik, kontratuaren burutzapenari atxikitako langileak Gizarte Segurantzan afiliatuta eta alta emanda daudela frogatu beharko du.

13.5.4.- Lanen jabetza. Egindako lanak, edozein fasetan egiten direla ere, Tolosaldea Garatzen jabetzakoak izango dira eta, beraz, hark edozein unetan eska dezake prestazioen zati bat eman dakiola, baldin eta behin betiko lan programarekin bat badator eta lanak behar bezala egitea eragozten ez badu.

13.5.5.- Jabetza intelektuala eta industriala. Berariaz besterik ezarri ezean, jabetza industrialaren edo intelektualaren eskubideak uki ditzaketen lanetan, enpresa adjudikaziodunarena izango da proposatutako ideia dela eta hirugarrenekiko sor daitekeen erantzukizun guztia. Halaber,

«entidad contratante», de otro lado, en todo lo relativo a las cuestiones derivadas de la ejecución del contrato.

b) Distribuir el trabajo entre el personal encargado de la ejecución del contrato, e impartirle las órdenes e instrucciones de trabajo que sean necesarias en relación con la prestación del servicio contratado.

c) Supervisar el correcto desempeño por parte del personal integrante del equipo de trabajo de las funciones que tiene encomendadas, así como controlar la asistencia de dicho personal al puesto de trabajo.

d) Organizar el régimen de vacaciones del personal adscrito a la ejecución del contrato, debiendo a tal efecto coordinarse adecuadamente la empresa adjudicataria con Tolosaldea Garatzen a efectos de no alterar el buen funcionamiento del servicio.

e) Informar a Tolosaldea Garatzen acerca de las variaciones, ocasionales o permanentes, en la composición del equipo de trabajo adscrito a la ejecución del contrato.

13.5.3.- La empresa adjudicataria estará obligada a ejecutar el contrato en sus propias dependencias o instalaciones, salvo que la necesidad de prestar los servicios en dependencias de Tolosaldea Garatzen estuviera prevista en el Cuadro de Características o en el Pliego de Prescripciones Técnicas, y así se hubiera autorizado expresamente. En este caso, Tolosaldea Garatzen pondrá a disposición de la empresa adjudicataria espacios de trabajo diferenciados de los que ocupa el personal empleado público, correspondiendo a la empresa adjudicataria velar por el respeto por parte de su personal trabajador adscrito a tales servicios de la ubicación asignada.

Si la naturaleza del objeto del contrato demanda que los servicios se presten de manera continuada en instalaciones ubicadas en los centros de trabajo de Tolosaldea Garatzen, la empresa adjudicataria vendrá obligada, además, a acreditar, con carácter previo al inicio de la prestación, la afiliación y alta en la Seguridad Social del personal adscrito a la ejecución del contrato.

13.5.4.- Propiedad de los trabajos. Los trabajos realizados en cualquiera de sus fases serán propiedad de Tolosaldea Garatzen y ésta, en consecuencia, podrá recabar en cualquier momento la entrega de parte de las prestaciones, siempre que sea compatible con el programa definitivo de elaboración y no afecte al correcto desarrollo de los trabajos.

13.5.5.- Propiedad industrial e intelectual. Salvo previsión expresa en contrario, en los trabajos susceptibles de generar

berak bermatu eta ordainduko ditu jabetza industrialaren edo intelektualaren eraginpean dauden elementuak erabiltzearen kostuak.	o afectar a derechos de propiedad industrial o intelectual, la empresa adjudicataria será plena responsable de la originalidad de la idea propuesta respecto a cualquier tercero. Igualmente garantizará y asumirá los costes por la disponibilidad de todos los elementos sujetos a propiedad industrial o intelectual utilizados.
Kontratazio honen bitartez Tolosaldea Garatzenek sortzen den obraren gaineko jabetza industrialaren eta intelektualaren eskubide guztiak eskuratzen ditu, hain zuzen ere industria aplikazioa edo ustiapen ekonomikoa eragin dezaketen guztiak. Eskubide hauek Tolosaldea Garatzenen esku egongo dira oraingo legerian ezarritako epealdirik luzeenean, harik eta jabari publikora pasatu arte.	Con la presente contratación, Tolosaldea Garatzen adquiere todos los derechos de propiedad industrial e intelectual susceptibles de aplicación industrial o explotación económica sobre la obra creada. Estos derechos se entienden adquiridos para Tolosaldea Garatzen por el plazo más amplio previsto en la legislación actual hasta su incorporación al dominio público.
Eskubideak modu esklusiboan eskuratu ditu Administrazioak, egungo ustiapen edota euskarri mota guztiak barne direla eta lurralde eremua mundu osoa dela, hau da, munduko herrialde guzti-guztiak. Ondorioz, Administrazioak beretzat gorde ditu lanaren jatorrizko formatua eta hura zabaltzeko, erakusteko edo ustiatzeko nahi adina aldiz kopiatzeko ahalmena. Hain zuzen ere, hauexek dira Tolosaldea Garatzenen jabetza intelektualaren eskubideak: sortutako obra kopiatzeko, banatzeko, jendaurrean emateko eta eraldatzeko eskubideak, eta ustiapen ekonomikoa eragin dezaketen gainerako guztiak.	Tales derechos se adquieren en régimen de exclusiva, sobre cualquier modalidad de explotación y/o soporte existente a la fecha, y con un ámbito territorial que se extiende a todos los países del mundo sin excepción. En consecuencia, se reserva el formato original de producción y la facultad de llevar a cabo cuantas reproducciones considere conveniente para su difusión, exhibición o cualquier otra forma de divulgación o explotación. En particular, los derechos de propiedad intelectual cuya titularidad corresponde a Tolosaldea Garatzen son los derechos de reproducción, distribución, comunicación pública, transformación de la obra creada y demás que puedan ser susceptibles de explotación económica.
Enpresa kontratistak eta lanetan parte hartzen duten pertsonek ezin izango dute erabili beren onurarako kontratuaren emaitza, ez hirugarrenei haren zatirik, filiaziorik, testurik, marrazkirik ez argazkirik eman, ez eta haren edukirik, osorik zein partzialki, argitaratu, Tolosaldea Garatzenek berariazko baimena idatziz eman ezean. Kasu guztietan enpresa kontratistak edukiko du betebehar horiek ez betetzeak eragiten dituen kalte-galeren erantzukizuna. Orobat, kontratuaren xede diren lanen emaitzako materialak Tolosaldea Garatzen en jabetza izango dira. Enpresa adjudikaziodunak konpromisoa hartzen du Tolosaldea Garatzenek jabetza industrialaren eta intelektualaren eskubide guztiak eskuratzeko eskatzen dizkion agiri guztiak sinatzeko.	La empresa contratista o cualquiera de las personas que hayan intervenido en la elaboración no podrán utilizar el trabajo para sí, ni proporcionar a terceros fragmentos del mismo, de la filiación, textos, dibujos, o fotografías del trabajo contratado, ni podrán publicar total o parcialmente el contenido del mismo sin consentimiento expreso y escrito de Tolosaldea Garatzen. En todo caso, la empresa contratista será responsable de los daños y perjuicios que se deriven del incumplimiento de estas obligaciones. La totalidad de los materiales que resulten de la realización de los trabajos objeto del contrato serán igualmente propiedad de Tolosaldea Garatzen. La empresa adjudicataria se compromete a suscribir cuantos documentos le requiera Tolosaldea Garatzen para hacer efectiva la adquisición por ésta de todos los derechos de propiedad industrial e intelectual.
13.5.6.- Bermearen erregela. Enpresa adjudikaziodunak klausula honen arabera bere gain hartutako betebeharrak ez betetzearen ondorioz Administrazioa kondenatzen badute kopuru batzuk enpresa kontratistarekin batera modu solidarioan ordaintzera, Tolosaldea Garatzenek ordaintzen duena hari jasanaraziko zaio; horretarako, Tolosaldea Garatzen k ordaindutako kopuruak osorik berreskuratu arte egoki eta komenigarriak diren ekintza administratibo eta judizial guztiak erabiltzeko aukera gordetzen dute beretzat.	13.5.6.- Regla de indemnidad. Si a consecuencia del incumplimiento por la empresa adjudicataria de las obligaciones asumidas en virtud de esta cláusula, Tolosaldea Garatzen fuera condenada al pago de cantidades con carácter solidario con la empresa adjudicataria, se repercutirá en ésta la suma satisfecha, a cuyos efectos Tolosaldea Garatzen se reserva el ejercicio de cualesquiera acciones, administrativas o judiciales, que sean adecuadas y convenientes hasta la total recuperación de las cantidades pagadas.
13.6.- LAN AKASTUNAK EDO GAIZKI EGINDAKOAK.	13.6.- TRABAJOS DEFECTUOSOS O MAL EJECUTADOS
13.6.1.- Ezaugarrien taulako AB) idatz zatian ezarritako berme aldia amaitu arte enpresa kontratistak kontratatutako lanak ondo eginda egoteaz erantzungo du, bai eta lan horiek dauzkaten akatsez ere, nahiz eta Tolosaldea Garatzenen ordezkariek lan horiek ikuskatu edo egiaztatu egiten ari diren	13.6.1.- Hasta que transcurra el plazo de garantía

